

elkar

UDABERRIA 2022
67. ZENBAKIA

www.elkar.eus



JOAN MARI IRIGOIEN

*Sorgin-argien ehizan eta Babilonia,
jardun emankorraren ale eder bi*

+

JON SISTIAGA


Del reportaje a la novela: *Purgatorio*

EVA GARCÍA SAÉN兹 DE URTURI

El libro negro de las horas, un homenaje a los libros

IZEN PROPIOAK:

Xabi Borda · Maddi Ane Txoperena · Fermín Etxegoien · Aintzane Usandizaga · Gastón Aran Santamaría · Garazi Arrula · Juan Lekue · Goiatz Labandibar · Alberto Muro · Iñigo Roque Irati Jiménez · Antton Olariaga · Sangma Francis · Joxan Goikoetxea · Mila Modu



Egin IRRIaren HARPIDETZA eta jaso DVDa edo ipuina opari!

Harpidetza egin aurretik aldizkaria ezagutu nahi duzu?

Bete www.irrienlagunak.eus webgunean topatuko duzun formularioa
eta azken bi aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.



NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxiporretaren Ikuskizunetan
3. (0034) 943-30 43 32ra deituz
4. harpidetza@irrienlagunak.eus
5. www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian



**URTEAN
49 euro!**





GASTÓN



Kultura sarean

Jarraí gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar

elkar_taldea

postdata.elkar.eus

flickr elkartaldea

elkarTaldea

www.elkar.eus

elkar
liburu-dendak

ALGORTA (GETXO)
Telletxe 11
94491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA
Gouverneurs 9
559593514

BARAKALDO
Merindad Uribe 14
944372276

BASURI
Dr. Jose Garai 11
944261384

BERGARA
Ibargarai 7
943764050

BILBO
Licenciado Poza 14
944434708

ZAMUDIOKO
ataria Zazpikale
944161450

Iparragirre 26
944240228

DONOSTIA
Fermín Calbetón 21
943420080

Bergara 6
943426350

GASTEIZ
San Prudencio 7
945144501

Apraiztarrak 1
Campus
945141670

HERNANI
Kale Nagusia 30
943551537

IRUN
Colon pasealeku 8
943631726

IRUÑEA
Comedias 14
948224167

Leire 9
948175538

TOLOSA
Arostegieta zg
943673533

Las colecciones preferidas por nuestros lectores

DESTINO



© Atlantycsa S.p.A.



JOAN MARI IRIGOIEN

SORGIN-ARGIEN EHIZAN
Joan Mari Irigoien
ELKAR



BABILONIA
Joan Mari Irigoien
ELKAR

Argitalpen berri bi dakartzala-eta, Joan Mari Irigoieni egin diogu bisita. Galdera serioak egin dizkiogu: bere azken liburuez, ibilbideaz, ekarpenaz... berak txantxa giroan erantzun dituenak, umorea galdu ez duen seinale.

Sorgin-argien ehizan plazaratu berri duzu. Zer topatuko du irakurleak barruan?

Orain dela urte batzuk Tenerifera joan nintzen futbol-partida bat jokatzera, Sanserekian. Halako batean, Tenerifeko kaleetatik genbiltzala, postalak eta postalak zituen denda bat aurkitu genuen, zeinetatik Lanzarotekoek piztu baitzuten nire arreta, hango paisaiek era berezi batean ukitu banindute bezala. Eta, orduan, ahots kementsu bat lehertu zitzaidan eztarrian, erraietatik esaten zidana: Joan Mari: hik noizbait joan behar duk Lanzarotera. Gero, hara joateko parada heldu zitzaidan, eta bidaia hura poema-liburu bat egiteko aitzakia perfektutzat hartu nuen. Hasi nintzen, bada, poema metafisikoak edo egiten... aurkitu

nuen, prozesu hartan, León Feliperen poema bat, "Yo soy el gran blasfemo" izeneko –*Hay un turno de voces: /yo grito, tú rezas, él canta... / El grito es el primero*–, amesten nuen libururen osotasunari behin betiko forma eman ziezaokeena, poema ustez metafisiko haien beste era batekoak –konprometituagoak edo– eranstea otu zitzaidal... izugarria iruditzen baitzitzaidan, besteak beste, zer geratzen ari zen Espainiako monarkiarekin eta monarkiak bultzatutako arma-trafikoarekin: zeinen aise kondentzen ditugun arma gutxi dituzten talde terroristak eta zeinen nekez hortzetaiaraino armatuta dauden armada arautuak. Bide hartan barrena nenhilela, edertasunari ere aurkitu nion bere plusa: ba ote da, bada, munduan,

PREMIO
NADAL
DE NOVELA
N 2022
DESTINO

Cuando la vida se detiene de golpe,
es el momento de saber quién eres.





**“Handik aurrera,
harremanetan
jarri ginen, akordio
bat sinatu genuen...
eta horratx!”**

AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: JUANJO EGANA

mendiko iturri xume batek sor dezakeena baino kantu ederragorik? Azken gisa, berriz, Lanzarotera egin nuen bidaiai aurkitu nion erremate egokia, Lanzarote burura datorkidan bakoitzean, etortzen ez zait, baina, aldi berean, Leireko monasterioa, ingurune bat bestearren jarrai-pena balitz bezala, alderantziz ere bai!

Aldi berean, edizio gaurkotu eta Irati Jimenezen sarrera luze batekin ateratzen da Babilonia, neurri batean zuri ospe eta irakurle gehien eman dizun liburua. Ze oroitzapen duzu 1989ko eleberriaz? Leku berezirik du zure karreran, zure gogoan?
Lehenik eta behin, Iratiria eskerrak eman nahi dizkiot bere hitzaurreagatik. Gainerakoan, zer oroitzapen ditudan Babilonia...? Onak, edo oso onak, orain kontatuko dizuduna horren adierazgarri: hainbeste saldu zen liburua –errekonozimendu sari batzuk ere jaso zituen, tarteant-, non, egun batean, ohi baino ausartago izatera deliberatu bainintzen, Elkar-eko arduradun nagusiei bilera bat proposatzen niela: ea nire denbora osoa idazteria ematearen truke, soldata itxuroso bat jasotzen nuen: soldata duin bat, alegia. Handik aurrera, harremanetan jarri ginen, akordio bat sinatu genuen, ni betetzen ahalegindu naizena, haietan ere bai... eta horratx!

Zure ibilibidea lehenagotik dator ordea: Oilarra-ren promesa, Hutsetik esperantzara... Zer mantentzen da funtsean duela 45 urteko gazte harenagandik zugan?

Begiak zabaldu, eta mundua gero eta okaztagarri-lokaztagarriagoa dela iruditzen zait: jakiteak, adibidez, munduko aberatsak gero eta aberatsagoak direla birusaren krisiaren ostean, tripetako mina eragiten dit, digestio-

haize itxuragabe batzuek minagotzen didatena: hurrengoan, beharbada, ginekologoaren kontsultara joan beharko dut, ni neu ere haurdun egon naitekeen susmopean sentitzen bainaiz sarri.

Zein esango zenuke direla zure gakoak gaietan, zure ezaugarri nagusiak formetan?

Nik idatzitako obran, egiteko modu bat baino gehiago aurki dezake irakurleak: prosa eta poesia egin dut, bai gazteentzat bai helduentzat, tragedia mingarriak eta nobela umoretsuak. Hemen gauza bat nabarmendu nahi nuke: nobela ustez umoretsu hauetan –Kalamadeen liburua eta Derbia– aurkitu baititut, beren iritzi eta aburuetan, irakurlerik muturrekoenak: edo asko gustatu zaie edo piperrak ere ez.

Beti izan zara zure ideiak erakusteko zalea baina artea ideologiaren menpe jarri gabe. Nola bizi izan duzu konpromiso hori?

Nik hori baino lehenagoko konpromiso bat dut. Edo bi: "Presoak kalera!" eta "Mendekurik ez!".

Azkenik, zure osasunaz galdetu behar. Nola zaudet? Eta nola begiratzen diezu bizitzari eta heriotzari?

Gaizki egin didazu galdera, Xabier, neure kasuan, oSa-Suna baita ez daukadan, baizik eta oXaXuna. Gainera-

koan, bizitzari dagokionez, bizigogoa badaukat, baina, aldi berean, gogo hori apaldua daukat... esan nahi dut ez dudala oraindik umorerik galdu, baina gaixotasunaren azken fase honetan ez nuke harrokeriak jota ibili nahi, planik zehatzenak egiten ditugunean ere, huts egin bailezakete: ustekabeko erorikoa, ustekabeko odobilbidea, ustekabeko ustekabea...

Orain, ez naiz heriotzaren beldur, baina iristen den momentuan, auskalo! Eutanaxiri lotuta hil nahi nuke, besarkada estu bezain suzko batean.

Jainkoagan sinesten dudan ala ez, ez dut garbi. Bainan esan ere esango dizut bizi izan ditudala momentu Jainkozko batzuk, musika ezin ederrago batzuen haritik: instrumental edo naturari lotutakoak: haizearena edo urarena, misterioriari lotutako musikak, azken batean.

Baina hara: Jainkorik ez balego ere, ez nintzateke aztoratuko, hiltzearekin batera, ezer ez bihurtuko ginateke, deus ez... eta ez ezerezak eta ez deusezak ez dute sufrizten!

XABIER MENDIGUREN
Editorea



ALFAGUARA

BERNARDO ATXAGA,
Premio Nacional de las Letras Españolas
y Premio Liber 2021,
deslumbra con un libro emocionante
sobre la vida y la muerte



Penguin
Random House
Grupo Editorial



penguinlibros.com

HEKTOR ORTEGA
Coordinador de la revista Elkar



Proposamena

ROMÁNTICOS DEL SIGLO XXI

Nos resultará conocido el paisaje y el paisanaje. Un pueblo cualquiera de la Euskal Herria atlántica, encajado entre montañas, otrora floreciente núcleo industrial, hoy post-casi todo. Se nos hará familiar la protagonista, una mujer trabajadora que casi siempre pasa desapercibida, como si fuera imperceptible para el ojo humano. Y sentiremos como vivencias propias gran parte de las situaciones y relaciones que desgrana el libro.

Nos sorprenderá el sentido del humor que destila, casi sin querer, la protagonista. Por no hablar de las contundentes sentencias

que, de vez en cuando, deja caer como si tal cosa. El ágil ritmo narrativo nos enganchará a una historia humildemente épica. Un hilo en el que se entrelazan las relaciones afectivas, los vecinos de escalera, la solidaridad de clase y la violencia de los poderosos. Una violencia de daños resultados pero, al parecer, tan imperceptible como la propia protagonista.

Nos dará qué pensar la progresiva destrucción de la red de vínculos sociales que hasta hace no mucho nos conformaban como sociedad: conocíamos a nuestros vecinos, a nuestros compañeros de trabajo, comprábamos

en tiendas de barrio... Todo un entramado de relaciones que las nuevas formas de vida están erosionando hasta el punto de condenar a muchas personas a la soledad.

Pero que no cunda la desesperanza. En cualquier momento, un gesto, una sonrisa, una voz amable pueden desatar fuerzas capaces de alterar el rumbo vital de la protagonista y, quizás, hasta de cambiar un poco el mundo.

Así es *Los últimos románticos*, la novela de Txani Rodríguez, colaboradora habitual de esta revista y premio Euskadi 2021 de literatura en castellano. Bejondeizula, Txani!



LOS ÚLTIMOS ROMÁNTICOS
Txani Rodríguez
SEIX BARRAL

Profila JACK KEROUAC

KEROUAC GUREA



IÑIGO ROQUE EGUZKITA
Errepideanen itzultzalea

Jack Kerouac jaiotzaren mendeurrenaren kari lerro batzuk paratzeko eskatu didate, *Errepiédean* euskaratu nuela-eta zeozer mamitsua esan nezakeelakoan. Urteurrenren beste urteurren batzuekin gurutzatzen dira ezinbestez. Jaiotzak, heriotzak, izenak, hizkuntzak. Txillardegiaren urteurrenen bat joan da duela gutxi, eta horrek gogora ekarri dit Kerouacek *On the Road* idatzi zuenean *Leteriaren egunkari ezkutua* argitaratu zela. Kerouacek Ameriketako "atzeko patio handia" zeharkatu zuen zapiri urtez Neal

Cassidyrekin, bi ziba erok bezala. Txillardegi Ferrol del Caudilloko garita batean idatzi zuen berea, soldaduskako guardietan. Batak beat belaunaldiaren haziak ereingo zituen, desmasia lisergikoekin. Besteak Eusko Tenebrosuen Alkartasuna sortuko zuen, Ildefonso Gurrutxagaren hitzetan esanda (*Krutwigi* kasu egitera). Gurera, existencialismoaren haizeak ekarriko zituen antiguatarrak, eta sozialismo humanistiko baten airea. Kerouacek ere aipatzen du Marx, baina kontrakulturaren saldarri erantsi beharreko osagai gisara.

Halakoak bururatzan zaizkit Kerouac euskara irakur daitekeela oroitzen nai-zinen guzietan. Eta, baita ere, Kerouac jaio zenerako gure aitzitak 8 urte zituela eta Karrantzako alkatearen behiak zaintzen zituela, erreneroen seme, Massachusetts bazein ere antzeman gabe. Ez baikara esku hutsik iristen gure irakurgaietara. Allen Ginsbergen *Ulua* poema ikonikoaren hasierako hitzak baliatuz, biak beren belaunaldiko buru argienetarikoak izan ziren, baina Kerouacentzat bakarrak balio du poemako segidako berriketak: "Nire

belaunaldiko buru argienak ikusi ditut suntsituta / eromenez, gosez akabatzen, histeriaz biluzik, / arrastaka beltzen karraketan barrena ordu txikietan / orratzziztada amorragariaren xerka" (Harkaitz Canorena da itzulpen monumentalak). Gaur egun, zenbait kontuk kirinka egiten digute Kerouacen lanetan: emakumeen apalesteak, zuri ez direnen sinpletzeak, hedonismoak... Ez, ez gara esku hutsik iristen gure irakurgaietara. Baina Kerouac baitezpadako bide-orria da errepide honetan.

Sylvia Plathen eleberri bakarra, bigarren olatu feministaren ikurretako bat



Eleberria
BEIRAZKO KANPAIA
Sylvia Plath



IRATI JIMÉNEZ IDAZLEA

BARREN-BARRENEAN


NOBELA ONAK, URRI ETA URRE

Lagunok, zer pentsatuko zenukete, idatziko banu egunen baten nobela bat, i letraren puntuak eta t letraren palotxoak falta dituena? Elkarrizketetan azpimarratuko nuke asko kosta zaidala, badagoela jendea kontra izan dudana, ez dela erraza izan. Alegia, argi geratuko litzateke egin dudana nahita egin dudala eta, sekula jakingo ez dudan arren,uste dut horrek, daukagun itsutasun kritikoarekin eta irakurleen eskuzabaltasun neurrigabearekin, experimentalismoaren abangoardiarako hautagai izango nintzatekeela. Logikoagoa litzatekeen arren, zuek guztioiak pentsatzea edo neu naizela ergela edo zuok hartu nahi zaituzteda ergeltzat.

Esperimentalismoz mozorrotuta, iraultza formalaren eta orijinaltasunaren izenean egin dira literaturaren historiako ariketarik estrafalarioenak. Esperimentu frakasatuak osatzen dute nobelagintzaren historiaren parte handi bat. Zola bera, experimentalismoaren barrokismo esquizofrenikoan galdu zen, irakurrezina izateraino. Editore batekin hamar urtez bizi izan nintzelako esan dezaket psikiatriakoetako ere bidaltzen dituztela argitaletxeetara nobeletako zirriborroak, formaren aldetik guztiz experimentalak zirela aldarrikatuz. Esperimentu horiek zentzudunak ala zentzugabeak diren, hori da kontua. Eta esperimentua bukatu ondoren, idazleak eta beste guztioiak nola epaitzen dugun emaitza. Bukatu duelako idazlea pozik egotea normala izan daiteke eta humanoa, baina literatura epaitzeko ez da nahiko. Testuari galdeitu behar diogu funtzionatzen ote duen, esperimentua zerbait interesgarria sortu duen. Badu interesik? Ulertzen da? Sortu da edertasunik edo magiari? Eta literaturarik?

Nobela gutxi egin dituen literatura bat daukagu eta nobela gutxi irakurri duen jendeak egindako literatura bat, tamalez. Nobela on bat sukarraldi batean irakurtzearen plazera ezagutu duten irakurleek ondo dakite plazer hori zer den. Ez genuke inoiz gutxieti beharko, i guztiek puntuatutelako eta t guztiek palotxoa. Dostoevskiren nobeletako mundua Dickensen eleberrietako baino konplexuagoa da baina Karamazovek ez duela Pickwick hiltzen zion Julio Cortázarrek eta arrazoi zuen, batak ez du bestea kentzen, irakurle berberak maite ditzake biak, esperientzia osagarriak dira.

Nobela onak ondo egindako nobelak dira. Bizirkidau, esnatu egiten zaituzte, gogoangarriak dira. Bizitako esperientziengatik antzeria gogoratzen dira, baita argumentua ahaztu ondoren ere. Leku batera eraman zintutzetako, aspaldi, eta leku horretako usainen memoria da kartelako. Nik ezagutu egiten dut inoiz existitu ez den Arranondo, Kresala irakurri nuelako, egon nintzen aspaldi New York triste eta magiko batean, 110. street-eko geltokian (Elkar, 1985), badakit zer gertatu zen Hamaseigarrenean aidanez (Erein, 1996) eta nola joan ziren



ILUSTRAZIOA: ANTON OLARIAGA

preso Neguriko aberaskume hura hil zuten bi mutilak, Izurri berriaren (Elkar, 1984) bukaeran. Berritzaleak ziren nobela horiek? Gure literatura txikian denek ekarri zuten berrikuntzaren bat.

Berritzaleagoak badira, jakina. Tartean nire fabriekotako batzuk, 100 metro (Erein, 2020), Abuztuaren 15eko bazkalondoa (Elkar, 1979) edo Babilonia (Elkar, 1989), adibidez. Formaren esperimentazioan asmatu zuten Saizarbitoriak, Arrieta eta Irigoienek, kontatu nahi zuten istorioa kontatzeko bide egokia topatu zuten. 100 metrok biolentziak zeharkatutako gizarte fragmentatuaren erretroatua ematen digu; Abuztuaren 15eko bazkalondoak erabaki txiki batek izan dezakeen zailtasun titanikoa sentiarazten digu, denbora behin eta

berriro luzatuz, erosarioan bezala; Babilonian hiru narratzaileen teknikak, desagertutako iragan munduan desastrea bere protagonisten itsutasunetik bizitzera behartzen gaitu, mundu futurotik etorritako lekuoak bagina bezala.

Formarekin nahi dena egin genezake baina esperimentua zein den jakin beharko genuke, eta ze emaitza eman duen galdezko eskubidea dugu. Gauza bat ondo kontatzen duten nobelak ez dira beti berritzaleak izan, baina nobela on baten irakurketa suhartuarekin transformatuta sentitu diren irakurleek badakite nobela onak iraultzaileak direla eta gauza bat ondo kontatzea lortu duen idazleak badaki zer den bere baitan iraultzaren espiritu garaiezina sentitzea.

Euskal emakume artista erreferenteak, gaur egungo sortzaileen galbahetik

(Ia) guztia moztu eta itsas daiteke album ilustratua osatu dute Aintzane Usandizagak eta Aran Santamariak hitzez eta irudiz, Esther Ferrer artistaren lana oinarritzat hartuta. Pamielak argitaratu du, eta euskal emakume artistei eskainitako Bagara bildumaren lehen fruitua da.

Bagara bildumaren arduradun Haizea Barcenilla eta Garazi Ansaren proposamena jaso zentenean, zer ikuspuntutik planteatu zenuten Esther Ferrer artistari buruzko liburu?

Aintzane Usandizaga: Arduradunekin hitz eginda, era-baki genuen ez zela liburu biografikoa izango. Badira halako lanak, eta oso ondo daude, baina guk artisten obran zentratu nahi genuen, eta interpretazio bat egin. Kasu honetan, fikziozko bat ikusiko dugu denbora harrapatzera saiatuz bere nahieran moldatzeko, eta lau planeko plan bat egingo du horretarako.

Nola hautatu zenituzten zuen album ilustratuko elementu nagusiak?

A.U.: Artistaren unibertsioan ahalik eta gehien murgildu ostean, denboraren elementuari heldu nion, mundu artistiko horretako elementurik potenteenetakoia iruditzen zitzaidalako: gorputzean denborak uzten dituen arrastoaz hitz egiten digu artistak askotan, eta performanceak ere horixe dira, gorputz baten ekintza espazio eta denbora jakin batean.

Aran Santamaria: Ferreren lanaren esentziaren bila hasita, katalogoak hartu nitten, paperarekin lan egiten dudalako gehienbat, eta performancearen eta gorputzaren ideiarekin geratu nintzen. Anatomia-liburu bat ere hartu nuen. Garunak atentzia deitu zidan, Esther



**(IA) GUZTIA MOZTU ETA ITSAS DAITEKE.
ESTHER FERRER ETA DENBORA**
Aintzane Usandizaga · Aran Santamaria
PAMIELA

oso intelektuala iruditzen baitzait, eta pentsatu nuen garunari garrantzia ematea. Hari gorri bat ere badago, nerbio-sistemarekin lotua: Ferrerrek berak hariak erabilten zituen bere maketetan.

Jolasak ere presentzia handia du liburuan, izenburutik bertatik.


A.S.: Ferreri entzun izan diot bere bizitzan libre izateko espazioa duela artea. Niretzat ere horixe da artea, libre

izateko toki bat, eta babesleku bat mundu gogor eta askotan arrotz honen aurrean. Sorkunta jolas moduan uler-tzen dut. Sortzen dudan momentuan gorputzari uzten diot eta burua askatzen dut, nahiz eta lehenengo ere badagoen nondik nora arituko zaren pentsatzeko prozesu hori. Jolasa gauza ederra da.

Pozik geratu zarete emaitzarekin? Zer opa diozu liburuar eta Bagara bildumari?

A.U.: Oso prozesu polita izan da, asko gozatu dut, eta nire uezte Aranen irudiek magia handia eman diote testuari. Estherren lana ezagutzen dutenek hainbat keinu identifikatuko dituzte eta besteei aukera bat sortuko zaie artistarengana hurbiltzeko. Ipuinaren bukaeran informazio gehiago jasotzeko aukera eskaintzen da, eta uste dut modu eder bat izan daitekeela haur, gazte zein helduak euskal emakume artistengana hurbiltzeko. Gainera, iruditzen zait badagoela edertasun berezi bat aurreko belaunaldiak euskal artista emakumeak gaur egungo beste sortzaile emakumeen bitartez interpretatu eta ezagutzen emate horretan.

DANIELE SARRIUGARTE
Idazlea



EVA GARCÍA SÁENZ DE URTURI

El libro negro de las horas es el nuevo trabajo de Eva García Sáenz de Urturi (Vitoria, 1972). La trama arranca cuando Unai López de Ayala, conocido como Kraken, recibe una llamada que pondrá patas arriba su vida: tendrá que encontrar una legendaria joya bibliográfica porque, de lo contrario, su madre —que, en principio, descansa en un cementerio hace décadas— morirá. La autora de la célebre *Trilogía de la Ciudad Blanca* propone una carrera contrarreloj entre Vitoria y el Madrid de los bibliófilos.

FOTOGRAFÍA: SOLE HAFNER



EL LIBRO NEGRO DE LAS HORAS
Eva García
Sáenz de Urturi
PLANETA

“*Debía un homenaje al mundo de los libros*”

tido común o aceptar los indicios y las pruebas que le indican que su madre puede estar viva y ser la mejor falsificadora de libros antiguos de la historia.

La novela intercala presente y pasado. ¿Con qué época disfruta más escribiendo?

Me resulta mucho más inmediato escribir ambientando a mis personajes en el presente porque no requiere la misma carga de documentación, pero el pasado me atrae demasiado y siempre acaba explicando la trama del presente.

¿Qué ha supuesto para Vitoria el éxito de sus novelas?

Me sigue emocionando que las rutas literarias que comenzaron en 2016 en el Ayuntamiento de Vitoria y en Turismo de Euskadi continúen vigentes y que los escenarios de mis novelas hayan atraído a mi ciudad a lectores de todo el mundo.

Esta historia es un gran homenaje al mundo del libro. ¿Por qué ha decidido hacerlo?

Porque ante todo soy lectora y bibliófila, y le debía un homenaje al mundo de los libros, porque ha sido mi ancla y mi refugio desde la infancia hasta el presente. Las escritoras y los escritores del pasado han sido mis mentores y mis maestros de vida.

TXANI RODRÍGUEZ

Periodista

SANTIAGO POSTEGUILLO

DESCUBRE LAS SAGAS QUE YA HAN CONQUISTADO A
MÁS DE 4 MILLONES DE LECTORES



DESDE
9,95 €



XABI BORDA

Hirugarren poema liburua argitaratu du Xabi Bordak (Azpeitia, 1981), Urtu aurretik, Susa argitaletxeak plazaratua. Aurretik, Birika zatiak (Susa, 2004) eta Gulliverren lokarriak (Elkar, 2009an) zituen argitaratuak.

Ezagutzen dugun munduaren –eta akaso planetaren– hondamendirako bidea ageri da maiz kezkagai liburan. Nola islatu nahi izan duzu hori poemetan?

Hondamendia bera baino gehiago interesatzen zait ideia horren inguruan sortzen den ziurgabetasun sentsazioa. Hau da, ezagutzen dugun munduaren galera posibleak sortzen digun egonezinhori. Ez bakarrik planetaren ikuspuntutik begiratuta, baita balizko amaiera hori mikro-mundu domestikoari aplikatuta ere.

Gai larri hori egunerokotasunarekin oso lotuta ageri da sarri. Kontrastea bilatu duzu?

Ez nuke kontrastetzat hartuko. Mundu hau pikutara doan sentsazioa inoiz baino presenteago dago gure egunerokotasunean (besteak beste, pandemia batetik igaro berri gara) eta aipatutako sentimendu hori, ziurgabetasun sentsazioa, uste dut, fondoko zarata baten moduan nabari daitekeela arnasten dugun airean bertan.

Zure hirugarren poema liburua da hau. Zertan da aurrekoen antzeko, zertan desberdin?

Gulliverren lokarriak hasi nintzen terminologia zientifikoa sartzen poemetan, adibidez, eta liburu honetan ere bide horretan saio batzuk egin ditut ez baitut iturri hori agortua ikusi. Dena den, dozena urte

ARGAZKIA: ANE BORDA



“Mundu hau pikutara doan sentsazioa inoiz baino presenteago dago gure egunerokotasunean”

igaro dira ordutik eta poemetako ahotsean zerbaite aldatuko zelakoan nago.

Zer neurritan zedarritzen du liburu bakoitzak zeure bizitzaren aro bat?

Liburu hau ez da azken hamabi urtean idatzitako poemen bilduma bat. Poema gehienak iaz idatzia daude. Azken urte hauetan, umeak direla, lana dela... kostatu egin zait literaturako denbora ateratzea. Baina liburu honen prozesuan sentitu dut indar bat poemekin berrekiteko, literaturarekiko halako adiskidetze bat.... Zentzu horretan, nahiko nuke liburu hau literatura aldetik nahiko agora izan den aroa zedarritzera baletor. Baina, batek jakin.

Poesia baino ez duzu argitaratu (Jotakie musika taldearen historia jasotzen duen liburua da



URTU AURRETIK
Xabi Borda
SUSA


salbuespen bakarra). Hala jarraituko duzulauste duzu, ala ekingo diozu inoiz beste literatura generoren bat?

Gustura sentitzen naiz poesiaren mugen barruan (mugikarik balu poesiak). Behar dudan libertatea ematen dit hitzakin jolasteko, trampak egiteko, irudiak probatzeko, kolpea bilatzeko, ia dena ezkutuan uzteko... Nobelek, eta narratibak oro har, oihartzun handiagoa badute ere, ez dut uste batere genero hutsala denik poesia. Beste literatura generoren bat ekingo diodan ez dakit, baina poesiariak gabe ez dut irudikatzen nire literatur jarduna.

Irakurle moduan, zer eratako poesia duzu maiteen? Eta poesiaz aparteko liburuetan?

Ez dakit, ez naiz asmatzeko gai zergatik gustatzen zaidan poeta baten lana, eta beste batena gutxiago, zergatik ipuin liburu batek KO utzi nauen eta beste batek berriz asperdura eragin didan. Ez da genero kontua. Barruak erasaten dizkidan poesia eta narratiba gustatzen zaizkit.

JUAN LUIS ZABALA
Idazlea




JAVIER CERCAS

El castillo de Barbazul

Vuelve Melchor Marín para enfrentarse al peor de sus miedos: la desaparición de su hija.

TUSQUETS
EDITORES

YA
DISPONIBLE
EN
BOLSILLO




JON SISTIAGA

Jon Sistiaga (Irun, 1967) presenta *Purgatorio* (Penguin Random House, 2022), su primera novela de ficción. Más de 400 páginas en las que ha vertido, inevitablemente, su pulso periodístico y su interés por desvelar la verdad de los sucesos, y de las personas. Un libro escrito con la sensibilidad de quien tiene mucho que contar. Una historia ficticia inspirada en muchas verdades, escrita con criterio y en la que habitan varios lugares comunes.

El protagonista, Josu, es esclavo del momento en el que decidió apretar el gatillo. Tanke se imagina que arrastra ocho enormes cadenas con las almas de sus ocho víctimas. Realmente, somos las decisiones que tomamos.

La novela es una búsqueda constante de los matices que tiene el difuso concepto de "responsabilidad". Todos somos construcciones hechas en base a las decisiones que tomamos. Las buenas y las malas. Esas decisiones, en el conflicto vasco, podían suponer 20 años de cárcel, llevar escolta media vida o acabar en el cementerio. En esas decisiones, muchas veces, influyen personas a las que consideramos referentes, o amigos que crees leales, además obviamente de otras circunstancias. Todas esas personas no suelen aparecer en los sumarios. El que te convence de la necesidad de hacer

FOTOGRAFÍA: ESTUDIO GOVER




“En algún momento hay que afrontar la renuncia al perdón, e incluso a la justicia, a cambio de la verdad”

un sacrificio humano por una causa suele permanecer en las sombras. *Purgatorio* habla de la necesidad de expiación, de reparación. Ése era el lugar en el que las ánimas debían purificarse. Es decir, un rincón de pensar teológico. Y para purificarse hay que empezar por enfrentarse a uno mismo. He conocido en mi trayectoria profesional demasiada gente que había matado, y muy pocos estaban en paz consigo mismos.

El perdón aparece, "con sus confines difusos", en el personaje de Alasne.

El libro abunda en algo que todavía está por contar y reconocer, y es que parte de los aparatos de seguridad del Estado hasta aproximadamente finales de los 90, y con excepciones, por supuesto, fueron muy crueles con muchos ciudadanos, brutales con muchos detenidos,



PURGATORIO
Jon Sistiaga
PLAZA & JANÉS

y en algunos casos, absolutamente atroces. Pero no hubo, creo, una violencia simétrica. He trabajado en el Ulster, en Gaza, en Ruanda, y allí sí había comunidades enfrentadas. ¿Perdonar sirve para algo? Claro que sirve, pero cuando es espontáneo y no una exigencia. Nos hemos acostumbrado a que se exija, a que se considere una línea roja, y eso no sirve. Es cosmética demagógica. "La ecuación del perdón" de la que hablaba Ricoeur, se establece entre la profundidad de la falta y la altura del perdón. Mi personaje, Alasne, está dispuesta a perdonar porque se cree de verdad la penitencia por la que transita el otro personaje. A ella le sirve el perdón. A otras víctimas no. Y todo es comprensible. Pero hay algo que plantea el libro, y que en algún momento hay que afrontar, como se ha hecho en otros lugares asolados por la violencia: la renuncia al perdón, e incluso a la justicia, a cambio de la verdad. Y Alasne es una de esas personas dispuestas a pasar página si antes recibe las respuestas que necesita.

¿Cree que este libro sanará heridas o que, por el contrario, llegará a escocer?

Pues mi intención es que escueza, claro. Porque si no escuece, muchos y muchas no se van a dar cuenta de que tienen esa herida.

TERESA SALA
Periodista

La entrevista completa:
<https://bit.ly/jonsistiaga>



MATAR AL REY
La nueva novela de
JOSÉ LUIS CORRAL
Autor del bestseller *el conquistador*



El poder
está en
la sangre

Penguin
Random House
Grupo Editorial
www.penguinlibros.com

LORALDIA 2022

FESTIBALA

Loraldia Festibalaren 8. edizioak martxoaren 7a eta 27a bitartean kulturaz bustiko ditu Bilboko hamaika txoko. Hamazortzi egunez Bilboko 15 gunera helduko dira disciplina anitzeko 26 ekintza. Musika, teatroa, dantza, literatura, bertsolaritza, artea, dastaketak, hiri kulturaren adierazpenak...

Pott bandak orain dela lau hamarkada iraganarekin apurtzeko erronka hartu zuen. Loraldia erronkari ja-raipena eman nahi izan dio. Gaur ere bihar izango da. Geroari begira dator Loraldia, begikatea garela ahaztu ez baitugu. Utopiak laguntzen gaitu ibiltzera. Euskal kultura garaikidea hemen da. Loratuko da garai latz honen arrakaletatik.

Erreferenteak gaurkotu eta modu ezberdinean eskaini. Sormen berrietaako plaza eskaini. Eta sortzaile gazteen harrobia sustatu. Anphorak apurtu nahi duenak aterbat aurkituko du zabalduko ditugun espazio berriean. Bazatoz?

BILBOKO MARTXOAK

Etiopia, utopia. Anphora, iragana. Sortzailearen irudi metaforikoek irudikatzen dute gure unibertssoaren paisaia. Transmisioa badakar. Zerumuga begietan iraganarekin hausten dugu eta mila ispiluton gure sormen garaikidea isolatzen da. Gaurkotzea dugu xede. Horregatik *Hautsi da Anphorari* lau hamarkadako hautsa kendu diogu eta gaurko musika itsasoetan nabigatuko da belak betean.

Menturazleen sasoia amaitu zela aldarrakatu zuten arren, Loraldiak benturaren ziurgabetasuna dugustuko. Arriskuak hartuko ditugu musika garakidearekin tau-letan eta Mikel Laboaren esperimentazioaren bidean ibiliko da. Sarritan ekartzen dugu gogora Jorge Oteizak urratutako traineruen joera: atzera begira jarrita aurrera joko dugu. Loraldia Terminalak hartuko du lurra Bilboko Zorrotzaurre irlan. Terminal honetatik hegan abiatuko da sormen berriaren harrobia. Euskal Harrian lili kimu sortu berriak loratzen dira arrakaletan eten gabe.



ARGAZKIA: ELKAR

LORALDIA ELKAR LIBURUDENDETAN

• Martxoak 21

19:00
Elkar Iparragirre
Hili. Uxue Alberdi

• Martxoak 22

19:00
Elkar Poza
Ezer ez da dirudienea. Maribel Aiertza

Gazte-sormenari eremua zabaltzea edizio honetako berrikuntzarik nabarmenetakoa da. Lur berrien esploratzaileak gara. Sormena da bidea.

Herri bat abian. Loraldia, mendi-makilak lez, ibilian-ibilian geroaren akuilua da. Probokatzea dugu asmo. Zortzigarren bidaiai ekiteko prest gara. Azken igandeak Alaine Agirreren gogoeta dakar: "Gerorik balego, zenbat aldiz loratuko gara, Bilboko martxoetan?"

www.loraldia.eus



Kirmen Uribe

La vida anterior de los delfines

Seix Barral

Una historia familiar de lucha y complicidad femenina entre el País Vasco de los años 70 y los Estados Unidos de las sufragistas

TOTELAK

Udazkenean argitaratu zuen Fermin Etxegoien idazle oñatiarrak *Totelak* eleberria. Laugarren fikziozko lana du, *Autokarabana* (2009), *Zinegotzia* (2013) eta *Urpekarriak* (2015) eleberrien ostean. Zera dio kontrazalean, "euskal literaturan ohikoaren auto-pertzepzio arketaren generoa (nor-gara-gu-zer-gara-gu)" jorratu duela *Totelaken*.

Zer moduz hiru hileko harrerarekin, pozik al zaude?

Bai, neuk espero baino hobeto ari da zabaltzen ahoz aho. Liburu trikoegia-edo zelakoan entregatu nuen Ereinen, baina gero editore lagunak bertan eginiko lanak, ezagun denez, onura handia ekarri zion testuari, eleberria goxatze aldera.

Eleberria eta saiakera, izan ere, biak uztarturik...

Tira, irakurle batek baino gehiagok esan dit gozatu egin duela pertsonaien artean gertatzen diren gorabeheren bitarteet, eta eleberrian badirela emozioak, umorea, goreneko tentsioak, paisaien eta leku


errekreazioa... Nahiz eta, tarteka, liburuan *larritasuneraino* aritzen naizen zenbait gai potente eta sensibleri buruz, hala nola euskara, euskaldunon espainiartasun kulturala, musika, oro har, eta Ruper Ordorika bereziki, mikro-geografiak... Saltsa galanta, baina pozik nago, bai baitirudi ez zaidala "maionesa" hori moztu edo alferrik galdu. Gustatuko litzaideke irakurleek esatea oso liburu aktuala atera zaidala, bai mamiz eta bai formaz. Ez dakit lortu dudan.

Ta zer dio Ruper Ordorikak; irakurri al du?

Ja, ja, bai, baina nahiago dut bere iritzia gordean utzi. Atrebentzia nahikoa izan da fiziko liskartsu batzen erdian Ruper bera katramilatzea. Inoiz barkatuko ahal dit ausardia...


Zein da *Totelaken* ekarpena, zure ustez?

Tira, esango nuke, ohi bezala, euskaldun diglosioko inguruko fantasia hiperrealista bat-edo sortzen saiatu naizela, eta saiatu naizela pertsonaien arteko gatazka gune existencialak gordin ematen, inorentzat, are, narratagarri suerta daitekeen modu, pentsatu nahi dut, zibilizatuan.



▼
TOTELAK
Fermin Etxegoien
EREIN

AMETSEN TRAFIKATZAILEA



AMETSEN TRAFIKATZAILEA
Andoni Urzelai
ELKAR

Nork bere eroabizidu, etabatzuetan nor bereeroak gobernatzen duela ere esan daiteke, Jon-Andoni Bilbao eleberri honetako protagonistari gertatzen zaion bezala. Naturaren kapritxoaz burutik elbarri jaioa –nahasdu nortasuna–, patuaren tirania du etsai txikitik; nerabe tonto harro bat bihurtu bezain laster, berriz, irabazteko jaioa den erabateko konbentzimendua garatu du bere izaterik ankerrenak. Besteen ahuleziak ezagutu eta menderatzeko asmoz, psikologia ikasketak egin eta etorkizuneko almanaketan bere izena letra larrix idaztea du amets jada Etxanoz Doktore bihurtutakoak. Bere anbizioak gauzatzeko abagunea ustekabeen egindako aurkikuntza zientifiko batek emango dio: sekula asmatutako nootropikorik indartsuenak.

Alzheimerra eragozteko farmako iraultzaile gisara iragarritako Abdortor medikamentuak ez du askorik iraungo ospitaletako esperimentazio guneetan, izan ere, hasiera batean, pazienteek berreskura dezakete galduetako memoria modu miragarrian, baina efektuek apenas irauten dute hogeita lau ordu, eta sendagaia ez da atrofia zerebralra gel-

diarazteko gai. Gainera, baditu bestelako ondorio larriagoak: hain dira biziak orioimenak, ezen pazienteak zonbien gisara uzten dituen, bi errealitye paralelo habitatzen baleude bezala. Ezin dute existentzia egiazko eta oroitua berezitu.

Gertakari txundigarrien hurrenkera korapilatsuak ekarriko ditu jazoeira horrek, delirioa eta errealityea nahasten diren azpimundu batean barneratu eta demenziaaren ertzak eta marjinazioaren estolda-zuloak ezagutzera eramango duena. Eldarnio bat bizitzeko gonbidapena da liburu hau; sukarramendu batek eragindako istorio haluzinagarria.

Andoni Urzelai Eraña Durangon bizi den aretxabaletarra, 1967an jaio zen. Zine eta bideo eskolan ikasketak egin ondoren, telebistari lotua egon da bere ibilbide profesionala, zuzendaritza, gidoigintza eta errealityoari lotutako zereginetan. Lau eleberri hauek eman ditu argitaratua: *Haginkadaka* (Irun Eleberri Saria, 2002), *Zirkulua* (Erein, 2004), *Demencia* (Baile del sol, 2015), eta *Karanbola toxikoak* (Susa, 2015).

LA NUEVA NOVELA DE
CAMILLA LÄCKBERG Y HENRIK FEXEUS

EL MENTALISTA

9726354 ATRÉVE7E A DESCUBRIR 85739735
075 L4 V3RDAD 3105

“Garaiko genero-arau itogarrien lekukotza ematen du liburuak, gainbehera itxuraz intimo bat kontatuz”

ARGAZKIA: ZALOAFUERTES

GARAZI ARRULA

Sylvia Plathek eleberri bakarra idatzi zuen bizi zela, kultuzko nobelatzat hartua da ordea. Euskaraz argitaratu berri den honetan, Garazi Arrula itzultzailarekin hitz egin dugu.

